



Bi belaunaldik abiatutako borobila

Martxoaren 8aren atarian, bi belaunalditako herritarrek izan dira hizlari, Borobilean elkarteak eta Asunak-ek antolatutako solasaldian / 2-3

TXINTXARRI

Itxaroteari buruzko kontakizuna

'Negu hurbilak' film luzearen zuzendarietako bat den Mikel Iburguren elkarrizketatu du TXINTXARRI-k / 9

Xirimirin batu ditu
Ernaik herritarrek;
'Gazteen eskutik'
dinamika aurkeztu
diete, besteak beste / 5



Txartela edo aplikazioa erabili behar dute errefusaren ontzia irekitzeko / 4



Meza, bazkaria eta dantza egin dituzte Andaluzia Eguneko ospakizunekin bukatzeko / 6



'Bizkarsoro' filmaren emanaldi eta hitzaldiak ireki du 23. Korrikari buruzko kultur egitaraua / 8



Kirolean arbitro edo epaile lanetara egin duten lau herritarrekin bildu eta solastu gara / 10



LOKEko judokak ederki jardun dira maila ezberdinetako txapelketetan eta podiumera igo dira / 11



Harrera ederra egin diote herritarrek Borobileen elkarteak eta Asunak neska* gazteen taldeak elkarrekin antolatutako saioari. TXINTXARRI

Belaunaldi artekoena, bosgarren borobila

Sexualitatea, soldatapeko lana, zaintza, feminismoa eta beste hainbat gai izan dituzte hizpide bi belaunalditako sei emakume lasarteoriatarrek. Borobileen elkarteak eta Asunak neska* gazteen talde feministak elkarrekin antolatutako saioa izan da, Martxoaren 8aren atarian

Txintxarri

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan, belaunaldi arteko hizaldia aurrera eraman dute Borobileen Elkarteak eta Asunak neska* talde feministak berriki. Bi belaunalditako sei emakume elkar-tu eta gai askori buruz hitz egin dute. Ixiar Arteagak egin ditu moderatzaile lanak, eta bera arduratu da Oriarte Landaberrin

bildutakoei harrera egiteaz; saioari hasiera ematearekin batera, gogorarazi du aipatu elkarteak aurrera eramango zuen bosgarren saioa izango zela. Deialdiek izan duten erantzun ona nabarmendu du, eta eskertu, horietara bertaratu diren guztiak. Arestian esan bezala, bi belaunaldietako sei emakume ondoan hartuta osatu du hil honetako borobila; Ema-

kumeen Nazioarteko Egunaren atarian. Belaunaldi zaharreko Manoli Zumeta Egia, Mari Jose Eizmendi Tapia eta Itziar Iartza Etxenike izan ditu alde batean, eta Dune Iriarte Iriondo, Nahia Urdalleta Azpiolea eta Amaieur Izagirre Larruskain gazteak bestean; Asunak neska* gazteen talde feministako kideak azken hiruak. Arteagak berak egindako

galderei erantzunez hartu dute hitza protagonistek.

Harremanen ganean galdetu die lehenik Arteagak hizlariei, eta gai horri tiraka partekatu dituzte euren gogoetak. Zumetak, adibidez, bere gazte garaiko harremanak egun mantentzen dituela kontatu du, horiek duten sendotasun eta garrantzia azpimarratuz. Iartzak, berriz, harremanek "etapa ezberdinak" izaten dituztela nabarmendu du, eta, Eizmendik, berriz, kontatu du garai batean, bikotekidearekin hasteak eragiten zuela, besteak beste, lagunetik harremanak alboratzea. Soldatapeko lanaz ere mintzatu dira, eta egungo egoerarekin alderaketa eginaz hiruek aipatu dute oso gazte hasi zirela lanean, 15-16 urterekin. Gaineratu dute irabazten zuten soldata etxean entregatzen zutela.

Zaintzaren hari muturrari tiraka jarri ditu gero Arteagak belaunaldi gazteetako partaideak. Izagirrek aipatu du zaintza lanak emakumei egotzen zaizkiela, horiek emakumeek eginak izatea espero dela. Adibide bat ere jarri zuen: "Orain arte egin ditudan lanak haurren zaintzari lotuak izan dira".

Sexualitatea eta hori bizitzeko moduz, abortuaz eta antisorgailuez hitz egiteko tarte ere hartu dute; hizlari bakoitzak bere ikuspegia plazatu du. Belaunaldi zaharreko partaideek kontatu dute garai batean, abortatu nahi zuten emakumeek Londresera joan beste aukerarik ez zutela izaten. Gazteak, berriz, ikastetxean jasotako sexu heziketaz mintzatu dira; azaldu dute ezer gutxi ikasteko aukera eskaini diela: "Hilerokoaz zerbait, haurdun ez gertzeko preserbatiboa erabili behar dela eta gutxi gehiago irakatsi ziguten".

IXIAR ARTEAGAK EGINDAKO GALDEREI ERANTZUNEZ SOLASTU DIRA SEI GONBIDATUAK

SEXUALITATEAZ, SOLDATAPEKO LANAZ ETA FEMINISMOAZ MINTZATU DIRA, BESTEAK BESTE

Hainbat kontzeptu argitzen laguntzeko eskaera ere jaso dute belaunaldi gazteko parte hartzaileek; ez bitarra izateaz, gorputz normatiboez eta generoei egotzen zaizkien rolez hizketan aritu dira, besteak beste.

Feminismoa, erreminta gisa

Emakume erreferenteak izendatzeko tarte bat eskaini die gero moderatzaileak hizlariei, eta bakoitzak bereak izendatu ditu: bere ama aipatu du, adibidez, Eizmendik, eta Mari Luz Esteban idazlea, berriz, Urdalletek. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan izandako irakasle bat ekarri du gogora, berriz, Izagirrek. Feminismoari begira jarrita, azken horrek "erruaren eta arduraren zama kentzen" lagundu dion erreminta gisa definitu du. Aipatu dute baita ere herriko emakumeak ezagutzeko aukera eman diela feminismoak, hala nola, Asunak neska* gazteen taldeko kide izateak.

Gonbidatu berezi batekin eman diote amaiera saioari, Gregorekin. Solasaldian aipatutakoak ekarri ditu gogora, noski, umoretik. Gustura aditu dituzte aretoan bildutakoek bere kontuak; barre algarra ederrak entzun dira.

53 lasarteoriatarrek korrika egin dute 34. Lilatoian

Espazio publikoan zein kirolean berdintasunaren aldeko pausoa aldarrikatu dute ia 5.000 emakume Donostian

Txintxarri

Donostiako erdialdeko kaleak morez bete ziren berriro ere hilaren 3an, igandearekin. Emakumeek espazio publikoan eta kirolean euren lekua aldarrikatzeko ekimen den Lilatoiak

edizio berria ospatu zuen, 34. aldia.

Hotzak eta lasterketa hasi aurreko euri zaparradak ez zituen Bulebarra bete zuten bost mila bat emakume kikildu eta berdintasuna lortzeko beste urrats

bat eman zuten. Jai giro ederra sortu zen aerobik beroketako doinu, batukada erritmo zein bestelako jarduerekin.

Abiadura ezberdinetan bost kilometroko ibilbidea egin zuten korrikalariak; Maria Lasa izan zen lehena helmuga igarotzen, 17.20. Lasarte-Oriako 53 ordezkarik ere parte hartu zuten lasterketan; helmuga igarotzen lehena Vanesa Tome izan zen. Ostadar Inklusio taldeko Ane Asensiok ere esku bizikletan egin zuen bidea.



Lasarteoriatar talde bat, helmugara iristen. JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN/IRUTXULOKO HITZA

Martxoaren 8ko eta geroagoko ekimenak

Lasarte-Oriako Udalak nahiz Asunak neska* gazteen talde feministak jarduera ugari antolatu dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan. Gaur, hilak 8, elkarretaratze eta manifestazio bana eta antzezlan baten emanaldia egingo dituzte

Txintxarri

Emakumearen Nazioarteko Eguna da gaur, Martxoak 8. Alderrikapenerako ekintzarik ez da faltako, 12:00etan elkarretaratze bat egingo baitu udalak Okendo plazan eta arratsaldean manifestazioa Asunak talde feministak 19:00etan, enparantza horretatik bertatik abiatuta. Ordu erdi geroago, *Escuela de princesas* antzezlanaren emanaldia aurrera eramango du herriko Makelur taldeak, kultur etxeko auditorioan. Sarrera doakoa da.

Aipatutako jarduera horiez gain beste zenbait antolatu dituzte udalak nahiz Asunak ekimenak datozen egunetarako. Hauek dira:

ASTELEHENA 11

Sara Arruti Benito EHuko iker-tzaile eta legelariak eta Maider Galardi Fernandez de Agirre EHuko ikerlari eta kazetariak *Solo sí es sí: alumbrando las sombras que ha producido el ruido mediático* hitzaldia emanango dute Antonio Mercero aretoan, 18:30ean.

ASTEARTEA 12

Ihitten elkarteak ondutako *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala proiektatuko dute Zabaleta Auzolan-en Basotxo plazako lokalean, 17:00etan.

Ordu eta erdi geroago, Idoia Garzes idazle herritarra gonbidatuko du Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak, berak idatzitako *Mendiko gaitza* eleberriaz hitz egitera. Antonio Mercero aretoan izango da saioa, 18:30ean.

ASTEAZKENA 13

Bideoforum bat egingo dute Biyak Bat adinekoen egoitzan, 17:00etatik aurrera.

OSTIRALA 15

Evaren Alabak-ek *Cromlech* antzezlanaren emanaldia egingo du Antonio Mercero aretoan, 19:30ean.

ASTEARTEA 19

Izan Iñurri elkartearen (*Min bizi*) podcasteko *Minbiziaren ama umeak* kapitulua proiektatuko dute eta ondoren solasaldi bat egin hizlariekin, euskaraz. Antonio Mercero aretoan izango da, 18:30etik aurrera.

ASTEAZKENA 20

Berditasunean irakurketarekin jolastuz ipuin kontaketa saioa egingo du Maria Garcia Loderok 6 eta 8 urte arteko umeekin, Udal Liburutegian, 17:00etan.

OSTEGUNA 21

Emagin kooperatibako kideek *Nola hobetu Lasarte-Oriako emakumeon bizitza?* lan saio parte hartzailea dinamizatuko dute Mirentxun, 18:00etan hasita.

OSTIRALA 22

Al descubierto filma emanango du Okendo Zinema Taldeak, kultur etxean, 20:00etatik aurrera. Sarrerek 6 euro balio dute.

Galdera lehiaketa, martxan

Gazte Kluba egitasmoan parte hartzen duten LH 5. eta 6. mailako gaztetxoek Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltako lehiaketa bat prestatu dute: hamar galdera eta hiruna aukera horietako bakoitzean. Jokatzeko, eskanea ezazu QR kode hau sakelako telefonoarekin edo sartu www.txintxarri.eus atari digitalean. Anima zaitetz parte hartzera eta zorte on, irakurle!



MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ZUETAZ HARRO

Ahalduntutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.



Edukiontzia grisarentzat, txartela edo aplikazioa

Birziklapen tasa areagotu eta herritarrek sortzen duten zaborra murrizteko helburuak dituen 'Ez utzi hondakinik lurreen' kanpainari ekin dio udalak. Gaur-gaurkoz kontainerretara botatakoaren %48,3 biltzen du gaika; datorren urtean %55 izan behar du

Txintxarri

Errefusa edukiontzia grisera botatzera doazen herritarrek aurrerantzean ikusiko dute ez dela nahikoa tapa altxa eta poltsa barrura botatzearekin, izan ere, hilaren 6an itxi egin zituen ontzi horiek udalak, *Ez utzi hondakinik lurreen* kanpainari ekin zion egun berean. Bi helburu nabarmenenak dira Lasarte-Oriaren birziklatze tasa hobetzea eta berreskuratu ezin daitekeen errefus kopurua gutxitzea, hori baita udalarentzat "ingurumeneko nahiz kostu ekonomiko handiena duen frakzioa, tona bakoitzeko", Agustín Valdivia alkateak eta Zerbitzuak saileko zinegotzi David Mateosek azaldu dutenez.

Ildo horretatik, Mateosek uste du "poztetia" dela lasarteoriarrek sortzen duten errefus kopurua "batez bestekoaren azpitik" egotea: pertsonako 940 gramo. "Bi urtetik hona jaisten ari da adierazle hori eta horre-



David Mateos eta Agustín Valdivia, kanpaina aurkezten. TXINTXARRI

la jarraitzea nahi dugu". Datu hori gero eta apalagoa izatea nahi du udalak, eta, birziklatze tasarena berriz, handiagoa. Gaur egun hondakinaren erdiak ere ez ditu gaika biltzen udalak (%48,3), nahiz eta urtebetean

portzentajea hiru puntu igo den. "Iazko martxotik ekainera bitartean egindako kanpainak izan du eragin gehien, hilabeteren batean %50eko langa gaintututa; maiatzean, adibidez, %51,4".

Iazko maiatzean erdietsitako portzentaje hori ez litzateke aski izango Europatik datozen zuzentzauek nahiz Lurzoru Kutsatuei buruzko 7/2022 legeak ezartzen duena betetzeko: 2025erako hondakinaren %55 jaso behar du udalak gaika; 2030ean, %60; eta, bost urte geroago, bost puntu gehiago. Helburu hori erdiesteko bidean lan egiten jarraitzeko asmoa azaldu dute udal ordezkariak eta uste dute "lortzeko modukoa" dela zifra horietara iristea.

Txartela edo aplikazioa

Edukiontzia grisa irekitzeko bi modu dituzte herritarrek. Horietako bat, iaz euren etxeetan jaso zuten txartel elektronikoa erabiltzea, eta, bestea, tresna horrek duen QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatu eta Ireki izeneko aplikazioa deskargatzea. Hori eginda, kontainerren sarraila gailu elektronikoko horren bitartez desblokeatu dute erabiltzaileek, txartel fisikoa erabili beharrik gabe.

Egoera berri horretara ohitzen laguntze aldera, Mateosek azaldu du zenbait informazio olana jarri dituztela gune hauetan: Adarra, Ola kalea, Zirkuitu ibilbidea (tenis pista parean), Hipodromoa (Jalgi kafe antzoki inguruan) eta Goikalen (haurrentzako parkearen mailan).

Errefusa ez ezik, hondakin organikoak izan dituzte hizpide Valdiviak eta Mateosek. Azpi-

marratu dute "oso pozik" daudela mota horretako zaborren kalitatearekin, "araztasunaren karakterizazioa" deritzona gero eta gertuago dagoelako %100eko portzentajetik: %96,14koa izan zen 2018an, eta, hiru urte geroago, %99,59koa.

Bukatzeke, aztarna ekologikoa murrizte eta hiri hondakinak hobeto kudeatzeko urratsak egiten jarraitzea animatu dituzte herritarrek, "Lasarte-Oria garbiago batez goza dezagun guztiok".

Aplikazioa deskargatu

Txartelarekin ez ezik, herritarrek aukera izango dute errefusaren edukiontzia Ireki izeneko aplikazioaren bidez zabaltzeko. Artikulu honen azpialdeko QR kodea eskaneatuta deskarga dezakete tresna hori. Doakoa da.



Gizarte errespetutsuago batean bizitzeko ahaleginetan

Herriko ikastetxeetako ikasleek prebentzio programa batean parte hartuko dutela iragarri du udalak

Txintxarri

Herriko gazteen artean errespetuzkoak ez diren jarrerak ugaritzen ari direla ikusirik, horiei aurre egin eta gizarte errespetutsuago bat helburu, prebentzio programak abiatuko ditu Lasarte-Oriako Udalak, herriko ikastetxeekin lankidetzan. Horien berri eman dute udal ordezkariak, prentsurrean. Ikastetxearen arabera, eta, batez ere bertako ikasleen adina kontuan hartuta, ezberdinak izango dira aurrera eramango dituzten prebentzio programak.

Landaberrin eta Sasoeta-Zumaburun, bi programa aurrera eramango dituzte. *Bizikidetzaren osasuntsu baterako prestakuntza* izango da horietako bat, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek parte hartuko dute. Honako gaiak jorratuko dituzte: homofobia, xenofobia, eskola jazarpena, sare sozialak eta konfiantza. *Berdintasun eta indarkeriaaren prebentzioari buruzko prestakuntza* da bigarrenari eman dioten izenburua. Lehen Hezkuntzako 4-5 eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago, eta honako gaiak

jorratuko dituzte: sexismoan eragitea, desberdintasunetik berdintasunera hezteak, sexualitatea eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzea berdintasunean, indarkeria matxistaren prebentzioan eragitea eta deketzioa lantzea.

Oriarte Landaberriko ikasleek ere bi programatan parte hartuko dute. *Berdintasun eta indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza* da horietako bat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1-2-3 eta 4. mailako ikasleak arituko dira bertan, eta honako gaiak landuko dituzte: sexu genero sistemaren oinarriak ezagutzea, LGTBIQ+ kontzeptuak argitzea eta hainbat errealitate ikustaraztea, genero rola identifikatzea, maskulinitateak ematen duen boterea ikustaraztea eta hura

eraldatzeko tresnak eskaintzea, eta, neska gazteen ahalduntzea erraztea.

Ikastetxe horretan bigarren programa bat ere aurrera eramango dutela iragarri du udalak, nahiz eta, ohartarazi duten horren aurkezpena irailean egingo dutela. Momentuz, aurreratutako informazio bakarra da "aitzindaria" izango dela.

Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedok guztiak zoriondu ditu udaleko hainbat arloren arteko "lan transbertsalagatik". Gainera, adierazi du, programa horiek geratzeko etorri badira ere, irekita daudela parte hartzen duten eragileek etorkizunean proposa ditzaketan gai edo kezka berrietara. Bere aburuz, programa horiek "etorkizunerako inbertsioa" dira.

Hautesle eroldako datuak egiaztatzeko aukera dute

Udalak ezagutarazi du lasarteoriarrek hilaren 11ra (astelehen izango da) arteko epea dutela hautesle eroldako euren datuak zuzenak diren ala ez egiaztatu eta aldatzeko errekamazio bat aurkezteko. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak apirilaren 21ean izango dira, igandearekin.

Datuak egiaztatu nahi dituzten lasarteoriarrek udaletxera joan behar dute eta NAN agiria, pasaporte edota gida baimena erakutsi udal langileari. Indarrean dagoen eroldak iazko azaroaren 29ra arte egingo dako mugimenduak ditu erregistratuta.

'Gazteen eskutik' dinamika aurkeztu dute

Xirimirin bildu ditu herritarrak Lasarte-Oriako Ernai gazte antolakundeak. Zenbait gai aurkeztu dizkiete bertan bildutakoei, horien artean hilaren 29tik 31ra Lezon aurrera eramango dituzten 'Gazteen Eskutik' topaketak

Txintxarri

Ernairen dinamika politiko propioa zein izango den azalduz ekin zioten hitzorduari. Lehenik eta behin, azaldu zituzten antolakundearen aurrera begirako helburu nagusiak zeintzuk diren: gazteen bizi baldintzen gaineko eztabaida zabaltzea eta horrek gizartean eragitea; borroka ideologikoa eginez gazteria horren baitan politizatzea; gazte mugimendua indartzea; eta, Ernai bihurtzea bizi baldintza duinak lortzeko agente. Azpimarratu zuten, gainera, hori gultzia ulertuko litzatekeela Euskal Herriko markoan eta horrekin lortu nahi dutena sistemaren inpubnazioa dela.

Ernairen proposamen programatikoaren gaineko azalpenak eman zituzten gero; orain bizpahiru aste argitaratu zuen hori gazte antolakundeak. Kontatu zuten bertan aztertzen direla "krisi neoliberal honetan" dauden puntu batzuk zeintzuk zeharka ala zuzenki gazte guztiei eragiten dieten. Hauek dira: osasun mentala; Euskal Hezkuntza Sistema Publikoa; bizi ereduak; etxebizitza; enplegua; zaintza; trantsizio ekolojiala; eta, azkenik, eskubide zibil eta politikoa.



Ernaiko kideak eta herritarrak, Xirimiri elkartearen. LASARTE-ORIAKO ERNAI

Gaineratu zuten Ernaik proposamen horrekin egin duena dela puntu horietako bakoitzaren testuingurua ulertarazi, adibideak jarritz, hala nola, osasun mentala adibidetzat hartuz, aztertu dute horren egoera nolakoa den, nola eragiten dien gazteei eta arazo horren aurrean zenbait alternatiba proposatzen ditu. Gauza bera egin dute beste sei gaiekin ere.

Amaitzeko, *Gazteen Eskutik* dinamikaren berri eman zuten, jakinaraziz hilaren 29tik 31ra aurrera eramango dutela, Lezon. Urtero bezala, Aberri Eguna ardatz hartuta egingo duten ekimena izango da. Gaz-

teak aktibatzea, bizi baldintza duinen alde egitea eta sozializatzea izango dira horren xedeetako batzuk, eta hitzaldiak, kontzertuak eta bestelako jarduerak iragarri dituzte; bertaratu nahi dutenek sarre-erak erosi beharko dituzte. Gainera, *Gazteen Eskutik* izena hartuko duen arren, gazteei ez ezik, adin guztietako publikoari zabalik egongo dela azpimarratu dute. Horrela, herritar oro deitu dute bertan parte hartzera; bertaratzeko autobusak antolatuko dituzte, eta, azken egunean, Aberri Eguna joan nahi dutenentzat ere izango da aukera hori (doakoa).



NEURE KABUZ JULEN BASTERRA

Errutina baten barruan

Eguna argitzeko 4 ordu falta diren arren, iratzargailuak ohetik ateratze-
ra behartu du L., argia piztu eta leihoak ireki ditu. Gaur ere, L. izan da
inguruko etxebizitza blokeetan argia piztu duen lehena. Gosaltzeko asti-
rik ere ez du hartu, hori bai, kafea prestatu du agudo, litro erdi. Likidua
termoaren barruan hustu eta kaleko bonbillen argiruntz abiatu da eguna
hasteko asmoz edo, hobeto esanda, hari aurrea hartuz.

S. ere goiz esnatu da gaur, L. baino pixka bat beranduxeago. S.-k,
ordea, patxada gehiagorekin ekin dio egunaren prebioari. Kea darion
infusioa prestatu du eta goizeko meditazioari heldu dio infusioa hoztu
bitartean. Gorputz-luzaketak egiteko parada ere hartu du, berak sortu-
tako errutinaxo azkar bat. Infusioa edan eta gosaria zorroan sartu du,
laranja bat, platano bat eta zereal-barratxoa. Lasai irten da etxetik,
presarik gabe eta aldarre onean.

L. ordea urduritzen hasia da, beti bezala, denbora gutxi dauka idatzi
behar duen dokumentua entregatzeko. Erlojuaren kontra eta bere boron-
datearen aurka borrokatuz lortu du testu madarikatua garaiz amaitzea.
Kafearen termoa ere hutsik dago. Estresa baretzeko zigarrotxo bat erre-
tzera atera da L. kalera, esnatu denetik erretzen duen seigarrena. Lehen
zailtasuna gaindituta L. zertxobait lasaia dago orain.

Are lasaia oraindik dugu gure S. bere proiektua esku artean duela.
Ofizina lana izaten du goiza, antolakuntza eta planifikazioaren kontu
amaigabeena. Zailenetik errezenera antolatzen ditu beti zereginak.
Tartean laranja, platanoa eta zereal-barratxoa jaten ditu. Bulego-lanak
burutu ahala, hobeto sentitzen da. Gauzak honela, lan denak bukatzen
dituenean paseotxo bat ematen du S.-k, bisaia kontent, datorrenari
gogoz heltzeko asmoz.

Nire bizitzak ez zuen S.-ren antza handiegirik garai hartan. Are gehia-
go, nahiko L. nintzela aitortu beharra daukat niretzat oso urte txarra
izan zen urte hartan. Gustoko ez nuena ikasten ari nintzen eta gustoko
ez nuen lana nuen asteburuetan. Nire errutina eramangaitza zen eta
frustrazioak inbaditurik asko diskutitzen nuen, batez ere nirekin, baina
egun hartan nagusiarekin: "Julen, askatasuna errutina baten barruan
ulertzen dut nik" bota zidan orduan nagusiak. Zer? Askatasuna, errutina
baten barruan? Esaldia deigarria bezain ulergaitza egin zitzaidan. Nire
errutina, L.-rena bezain gogaikarria bazen zertara zetorren askatasuna-
ren kontu hori? Ni ez nintzen askea sentitzen! Ni ez nintzen S.!

L.-ren infernua eta S.-ren paradisuari begira jarrita hauxe datorkit
gaur burura: geure erabaki askeekin errutina xarmagarri bat sortzen
dugunean erraza dela merituek geure buruari egozte eta egoera hori
guztiz geurea dela aitortzea. Bestalde, zenbat kostatzen zaigun infernua
onartzea, alegia, geure erabakimenak infernua sortzen duenean eta
erretzen gaituen errutina bat daramagunean ez gara haren egileak gu
geu garelako esateko kapazak izaten.

Kosta zait niri ere, baina, azkenean ulertu dut nor den kasu guz-
tietan egilea.

Julen S. L.



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, arroza,
pasta, kontserbak, lekaleak eta
ardo loteak euskaraz etiketatuta
eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



Andaluzia Eguna lekuko osagaiekin ospatu dute

Otsailaren 28ko Andaluzia Eguneko ospakizun jarduera nagusiak astebururako utzi ditu Semblante Andaluz elkarteak: meza, bazkaria eta dantza, Semblante Rociero koruak kontzertua eman bitartean. Hori da jaiaren hirukoa eta funtzionatzen jarraitzen duela dirudi

Txintxarri

Zumaburuko Arantzazuko Ama elizan hasi zuten hilaren 3rako prestatutako egitaraua. Elkarreko kideez gain, Agustin Valdivia alkatea, Nuria Fernandez alkateordea, Jon Antxordoki eta Ainara Elicechea zinegotziak ere bertan izan ziren. Meza rozieroa Semblante Rocierok girotu zuen, liturgiako kantak abestuta. Egun horretan beste bat gehitu zioten bertan zen Virtudes Campillo herritarrek 95 urte betetzen zituela-eta, apaizak hala eskatuta. Horrelakoei dagokien *Zorionak zuri* (gaztelaraz) abestu zioten, *Salve rociero*-aren aurretik. Eskaintzak irakurri eta eman zituen Duende laukoteak egindako dantzarekin amaitu zen ospakizuna.

Ordu eta erdi geroago hitzordua zuten Atsobakarreko elkartearen, bazkaritarako. Otordurako minutu gutxi falta zirela azken ukituekin ari ziren

eta mahaien inguruan esertzen joan ziren bazkideak. Mahai nagusiko gonbidatuak sartu zirenean, elkarrearen izenean Jose Mari Melladok agurtu zituen bertaratutako guztiak eta ondoan zuen alkateak ere hitz batzuk esan zizkien. Mahai-kide izan zituen Fernandez, Antxordoki eta Elicecheaz gain, EH Bilduko Estitxu Garmendia eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemoseko Miguel Angel Toloza. Bazkariari ekin aurretik, zutik jarrita Andaluziako ereserkia abestu zuten. Hitzak ez zekizkitenentzat, haiek zituzten papertxo zuriak eta berdeak utzi zituzten mahaietan. Lagungarriekin edo gabe, denek kantatu zuten.

Bazkalostea amaituta, abesteko txanda Semblante Rocierok hartu zuen. Ordubetez aritu ziren kantuan eta dantzan jarri zituzten hainbat bikote sevillanen txanda heldu zenean. Beste batzuek, aulkietan eserita entzun

eta abestu zuten koruaren errepertorioa. Emanaldia gustatu zaien seinale taldeak jaso zuen txalo zaparrada.

Ospatutako guztiaren *ajea* gainditu ondoren, Semblante Andaluzeko kideek eskerrak eman dizkiete egun berezi hori beraiekin batera ospatzeko tartea hartu zuten herritar, bazkide eta udal ordezkari guztiei. Otsailaren 28an bertan ohorezko ardoarekin topa egin zuten Atsobakarreko egoitzan eta orduan hartu zuen Melladok gidatutako zuzendaritza taldeak aurrekoen erreleboa.

Barrikote garaia

Sagardotegi denboraldi betearen gaudenez, asko dira hilabeteotan barrikotea egiten duten elkarteak. Hutsik egiten ez duenetako bat da Semblante Andaluz eta jakinarazi du laster jakinaraziko duela aurtengo topaketa zein egun eta ordutan aurrera eramango duen.

Gipuzkoako Eskolartekoan parte hartuko dute Earra eskolakoek

Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola Andoainen ariko dira; Araitz Ramos eta Maddi Lasa, aldiz, Legazpin

Txintxarri

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 44. aldia parte hartuko dute herriko Earra eskolako lau ikasle. Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola gaur (hilak 8) ariko dira koplaka, Andoaingo Kotoi elkartearen. Afarria 20:00etan izango da eta bertsolariak bi ordu geroago hasiko dira lanean.

Datorren asteko ostiralean, hilak 15, Legazpiko Muruazpi elkartera joango dira Araitz Ramos eta Maddi Lasa. Horiek ere 20:00etan afalduko dute eta



Earrako kide batzuk. TXINTXARRI

22:00etan ekingo diote bertso saioari. Beste bi kanporaketak Aizarnazabalen eta Oiartzunen jokatuko dituzte.

Eskolartekoko saioetarako txartelak erosi nahi dituztenek www.bertsosarrerak.eus atari digitalean dute horretarako aukera. Tiket bakoitzak 16 euro balio ditu.

Finala, apirilaren 12an

Eskolartekoko final handia apirilaren 12an jokatuko dute, Las-turren. Sei bertsolari ariko dira bertan: lau kanporaketetako irabazleak zuzenean sailkatuko dira eta seikotea puntuazioz sailkatutako beste bi kiderekin osatuko dute. Aizarnazabalgo irabazlea, Kattalin Arabolazak, azken saio horretarako txartela poltsikoratu du dagoeneko. Orotara 22 gaztek izena eman dute aurtengo aldirako.



'Zorionak zuri' abestu zioten 95 urteko Virtudes Campillo herritarri. TXINTXARRI



Bazkalostean gogotik egin zuten dantza, Semblante Rocieroren emanaldian. TXINTXARRI

Barrikotea egiten duen beste elkarteetako bat da Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea. Hilaren 16an txotx egingo dute bazkarira bertaratzen direnek, eragile horrek Adarra kalean duen egoitzan, 14:00etatik aurrera. Izena emategatik 29 euro ordaindu behar dituzte herritarrek eta tramite hori egiteko

lokalera joan behar dute edota Angelekin harremanetan jarri, 653 74 91 94 telefono zenbakira deituta.

Garai honetan ohikoa den menua (bakailao tortilla, txuleta, gazta eta irasagarra...) dastatuko dute bazkaltzera animatzen direnek eta Bereziartua etxeko sagardo freskoa edan.



LARREKOETXKO IRAKASLE GELAKO LAGUNAK

Hilaren 12ko grebarekin bat

Euskal Autonomia Erkidegoko gehiengo sindikalak greba deitu du hilaren 12rako zerbitzu publikoetan, Hezkuntzan barne, Eusko Legebiltzarrerako hauteskudeen atarian lan baldintzak Madrilen ez erabakitzea aldarrikatzeko. Lanuzte deialdi horri atxikitu zaio Oriarte Larrekoetxe institutuko irakasle talde bat, eta talde argazkia atera ikastetxe atarian.

Haur sahararrak udan Lasarte-Oriara etor daitezzen

'Uda bateko besarkada' lelopean, haur sahararrak familietan hartzeko Oporrak Bakean programa martxan jarri dute berriki eta Lasarte-Oriara ere hasi dira egitasmoa prestatzen. Izena emateko azken eguna apirilaren 15a izango da



Iazko programan parte hartu zuten familia eta antolatzaileak, Porrotxekin, Pasaian. TXINTXARRI

Txintxarri

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko kideak dira udala eta programaren antolatzaileekin elkarlanean dabiltekin. Gogoratu dute iaz 8 urteko bi haur, Hasana eta Abdi, etorri zirela herriko pare bat familiaren etxetara, udako oporraldia igarotzera. "Aurten kopuru hori handitu nahi dugu", adierazi du eragile horretako kide Tomax Arrutik. "Lasarte-Oria beti izan da oso herri eskuzabala eta sendiak animatu nahi ditugu abentura honetan parte hartzera". Zehaztu du Covid-19aren pandemiaren aurretik sei bat ume etortzen zirela uztailean gure herrira.

Oporrak Bakean egitasmorako beharrezkoak diren tramiteak egiteaz gain, taldeko kideak "adi" egongo dira, parte hartzen duten herritarrei "laguntza eta babesa" emateko. "Gure

elkartearen, udalaren, familien eta haurren arteko talde lana da hau".

Udako bi hilabete horietan zehar, 8 eta 12 urte arteko haurrak Saharako udako baldintza gogorretatik aldentzeaz gain, beraien elikadura eta osasuna hobetzen dute eta osasun azterketak egiten dizkiete, besteak beste. Herrialde horretako gatazka politikoa ahaztu, sasoa indartu eta beste errealtate batzuk ezagutzeko aukera ematen diete.

Iaz, Txakun Kultur Elkarteak Udako Txokoetan parte hartu zuten begirale baten laguntzarekin eta igeriketa ikastaro bat egin zuten uztailean zehar. Beste herrietara etorri diren sahararrek hondartza eta igerilekuetan bainatzeko geratzen ziren eta festez gozatzeko aukera ere izan zuten, besteak beste. Aurten udako prestaketa lanekin hasiaki dira dagoeneko.

"Askotan, uste dugu haurrak etxean jasoko dituztenek erakutsi eta irakatsiko dietela guztia, baina gero jabetzen dira alderantziz ere badela, beraiek asko ematen digutela", esan du Arrutik. Gainera, haurrak hemen egon bitartean, haien familiekin harremana izan dute, telefono zein bideo deien bitartez eta "asko" laguntzen die horrek.

Uda honetan saharar haur baten harrera familia izan nahi dutenek elkartearekin harremanetan jartzeko bide hauek dituzte: www.oporrrakbakean.eus webgunea, oporrrakbakean@gmail.com helbide elektronikoa edota 696 01 47 86 telefonoa. Apirilaren 15a da izena emateko azken eguna.

Aste Santuaren ondoren, animatu diren herriko familiekin eta zalantzan daudenenkin bilera bat egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Sahararren historiaz eta istoriez aritu da

"Beti esaten dut saharar bakoitzak izan dezakeela liburu bat". Horretarako nahikoa denbora izango balu, Berasainek atzoko aurkezpenean behin baino gehiagotan errepikatu zuen hori egingo luke ziur asko. Momentuz, liburu bakarra argitaratu du, sahararren historia garaikidea eta testigantza ugari bilduta: *Sahara, herri bat erresistentzian*.

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak antolatu zuen otsailaren 29ko aurkezpena, eta, berriemaile nafarrari hitza eman aurretik Tomax Arrutik aurkeztu zuen hizlaria, Jalgi kafe antzokira bertaratu diren ikus-entzuleei ongietorria egitearekin batera. Urtero moduan, aurten 48 urte bete berri dituen Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoaren aldarrikapen dataren bueltan (otsailaren 27a) ekimenak aurrera eramaten ditu talde horrek; aurtengoan elkarretaratze bat eta aipatu liburu aurkezpena izan dira. Hasi aurretik nahiz amaitu eta gero, lan hori erosteko aukera izan zuten.

Liburuaren azalean azaltzen den emakumea aurkeztu zuen Berasainek: Embarka Brahim Bumajruta (Aaiun, 1955). Ez zuen kasualitatez pertsona hori eraman portadara, izan ere, kazetariaren esanetan, bere bizitzak islatzen du sahararren historia garaikidea nolakoa izan zen. Gainera, emakumeak sahararren erresistentziaren sinbolo bilakatu dira urteen poderioz. Mendebaldeko Sahararen garrantzitsuak izan diren eta izaten jarraitzen duten beste pertsona ugari ere aurkeztu zituen, esate baterako, Mohamed Lamin Ahmed, "liburua ez, entziklopedia ibiltari bat dena, sekulako memoria du". Fronte Polisarioaz hitz egin zuen berarekin, batez ere.

Mendebaldeko Sahararen nazio askapenerako mugimendu politikoa eta militar hori 1973ko maiatzaren 10ean eratu zuten, autodeterminazio eskubidea zutela aldarrikatu eta herrialde gisa euren etorkizuna erabaki behar zutela (Espainiaren kolonia ziren)

munduari azaltzeko. Nazio Batuen Erakundeak aitortu zien hori ebazpen ugari bidez; are gehiago, ikuskari talde bat bidali zuen lurraldera eta ordezkari horiek prestatu zuten txostenean sahararren eskaera berretsi zuten.

Ordurako, ordea, "traizioa" egosten ari ziren Espainia bera, Maroko eta Mauritania. Hiruko Akordioa deritzon itunaren bidez gorpuztu zuten eta geroago etorri zen Martxa Berdea (sahararentzat beltz kolorekoa dena) izenez ezagutzen den inbasio militar eta zibila, 1975eko azaroaren 6an hasi zena. Berasainek azaldu zuenez 350.000 lagun inguru sartu ziren sahararren lurretara eta bertan bizi zirenek handik basamortura ihes egitea beste erremediorik ez zuten izan. Biztanle asko eta asko geratu ziren bidean, hilda edota desagertuta. "Espainiak ez zuen deskolonizazio prozesua ongi egin; bere historiaren kapitulu ilunetako bat da hau".

Mendebaldeko Sahararen historian giltzarri izan diren data, gertakari eta testigantza gehiago partekatu zituen Berasainek, gaur egungo egoerara iritsi arte. Sahararrek erresistentzian segitzen dutela adierazi zuen, "duintasunez". Duela hiru urte berriz ere estatu okupatzaileen aurkako gerrari ekin zioten, argi utzita ez dutela etsitzeko asmorik, herrialdearen etorkizuna zein izango den beraiek erabakitzeko erreferenduma gauzatu arte.

Hilaren 18ko aurkezpena

Ali Salem Iselmu sahararrek idatzitako *Amor en la villa del Mar Blanco* eleberraren aurkezpena izango da Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak aurrera eramango duen hurrengo ekimena. Hilaren 18an izango da, astelehenarekin, Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etan. Kristina Berasain Tristan bera izango da moderatzailea.



Kristina Berasain Tristan, Jalgira bertaratutakoei azalpenak ematen. TXINTXARRI

Euskaldunei buruz hitz egiten duen film bat

Korrika Kulturalaren barruan antolatutako lehen jarduera aurrera eramán dute. Okendo Zinema Taldeak antolatuta, 'Bizkarsoro' filma ikusteko aukera izan dute kutur etxera bertaratuak, baita horren ostean Josu Martinez zuzendariarekin hitz egitekoa ere

Txintxarri

Bizkarsoro herria ez da existitzen eta, era berean, Euskal Herriko edozein herri izan daiteke. Bertako herritarrak fikziozko pertsonaiak dira, eta aldi berean, euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztiak. 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren fikziozko bost istorioak osatzen dute filma, ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarrituak.

Hastapenetatik zuen film bat egiteko asmoa Josu Martinezek, nahiz eta onartu duen inork gutxi sinesten ziola. Garai desberdinetan filmatu zituen, XX. mende osoan herri hori nolakoa zen erakutsi nahi duten istorioak, eta aurrera zihoan heinean iritziak aldarazi zituen. "Hirugarrenerako sinesten zuten iritsiko ginela pelikula osoa egitera".

Duela sei urte filma ekoizteko finantziazio bila ari zela euskaraz, Iparraldean, lekuko jendearekin... "ezinezkoa" zela esan zieten. Beraz, zatika egitea erabaki zuten. "Horrela demostratu dugu ezinezkoa zen hori posible zela", zehaztu du. 1980ko hamarkadan Juanba Berasategik *Kalabaza tripontzia* euskarazko animaziozko film luzearekin antzeko zerbait bizi izan zuela gogoratu du. "Burutik jota zegoela esaten zioten. Orduan, gauza bera pentsatu zuen: 'Egingo dut labor bat, gero beste bat, gero beste bat... horrela osatuko dut luzea'. Sei istorio labor dira eta filma oso garrantzitsua izan zela belaualdi batentzat". Bilbotarrak horren berri izan zuen iaz argitaratu zuen liburu batarako ikertzen ari zela baina uste du erakusten duela "euskaldunok oso ondo dakigun gauza bat, gauza guztiak direla ezinezkoak egiten diren arte".

Euskarari buruzko pelikula bat beharrean, euskaldunei buruzkoa dela argitu izan du zuzendariak lanaz hitz egitean, eta



Herritar ugari bertaratu da kultur etxera, 'Bizkarsoro' ikustera. TXINTXARRI

"EUSKALDUNOK OSO ONDO DAKIGU GAUZA GUZTIAK DIRELA EZINEZKOAK EGITEN DIREN ARTE"

ñabarduraren zergatiaz galdetu diote. "Ez zait bereziki interesatzen euskara zentzu horretan. Euskara salbatuta dago, zientzia liburuetan dago, gramatiketan dago, aspaldi egin ziren hiztegiak... Salbatuta ez dagoena da euskaldun biziak. Ez da hizkuntzari buruzkoa, euskara hiztunei buruz, baizik".

Euskal herritar guztiek hizkuntzarekin "harreman berezi bat" dutela azaldu du Martinezek. "Batera edo bestera, onerako edo txarrerako. Bizi garen gizartean, euskaldunek eta euskaldun ez direnek, bortxaz badute diglosi edo bilinguismo egoerarekin harremana". Batzuek ez dute euskarara hurbildu ere nahi, baina ez zaie gauza bera gertatzen beste hizkuntza batzuekin, gatazka bat dute; euskaldunak zirenak, baina jada ez direnak... Zentzu horretan, filmak jende asko uki-

tzen du pertsonaiak "oso errekonozibleak" direlako, ikusle asko ezagutuko dituzte inguruan edo familian dituztelako halakoak.

Lekukotza koherenteak

Gogoeta amaitzeko gehitu du euskal zinema egiterakoan badirudiela "batzuetan disimulatu egin behar dela euskal zatia". Euskaraz egitekotan leku aseptiko batean, lokalismoan ez erortzeko. "Badirudi ez dagoela modan".

Filma egiteko ikertu egin du Martinezek. Entzundako istorioak, bereak, lekukotzetatik jasoak... Harkaitz Canori irakurria dio fikzioa eta errealitatearen arteko aldea fikzioa koherentea izan behar dela. Berak koherentzia eman dio hainbat istoriori, ordenatu. "Ia dena koherentzia emateaz harago, egia da". Adibide gisa, filmean ikus daiteke Marsellesa ez dakitela herri txiki bateko biztanleek Lehen Mundu Gerra ostean; baina Piarres Larzabalek bere memorieta kontatzen du, Hazparnen (Lapurdi) 1944an, Bigarren Mundu Gerrako liberazioaren ondoren. "Jendea oso dosi txikian zen frantsesa". Ikastolen zatirako, berriz, 20 bat elkarrizketa egin eta ahozko lekukotzak jaso ditu.



TXINTXARRI

Atzoko eta gaurko loti ederrak

Glu Glu taldeak *Loti ederrak* antzezlanaren emanaldia egin du kultur etxean. Familiei begirako obra ipuin klasikoaren egokitzapena da, baina buelta bat emanda, egun nerabeek duten sare sozialekiko menpekotasunaz hausnartzeko eta edertasun estereotipoak hausteko. Musika, dantza eta abestien bidez lotutako kontaketa protagonista Goizeder neskatoa da.



OIHAN AGIRRETXE

Teresategin ere omendu dituzte

Otsailaren 28an bete ziren 21 urte Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi hil zirela auzo istripu batean, Almerian preso zegoen Juankar Balerdi ahaidea bisitatzea zihoazela. Egun horretan egindako aitortza ekintzaren segida izan zen hilaren 3an dozenaka herritarrek aurrera eramán zutena, Teresategi mendian. Ekitaldia egin eta haien omenezko monolitoan larrosa bana utzi zuten.

Zabaletako auzotar ugari, Txuri Urdinen

Txuri Urdin izotz jauregiko pistan gustura patinatu zuten Zabaletako 50 bat bizilagunek hilaren 2an. Saio horren ostean, indarrak berrietzeko, babarrun jan ederra egin zuten herrian. Auzo elkarteak lagunek jakinarazi dutenez, urteko batzar orokorra aurrera eramán zuten bezperan. Hurrengo ekimena 23. Korrikan parte hartzea izango da.



ZABALETA AUZOLAN



Mikel Iburguren, ezkerretik hasita eserita dagoen bigarrena, filmaketa taldeko kide ugariarekin. NEGU KOLEKTIBOIA

"Gurea ez da heroien pelikula bat, on eta txarrena"

MIKEL IBARGUREN NEGU KOLEKTIBOKO KIDEA

Aktore izatea ogibide duenak zuzendu ditu 'Negu hurbilak' filmean lan hori egin duten pertsonak. Prozesu horretan "asko ikasi eta desikasi" duela nabarmendu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Manuel Lekuona Kultur Etxean izana da lehendik ere berriki Lasarte-Oriara bizitzera etorri den Mikel Iburguren zestoarra. Behin behintzat bai: 2022ko azaroan *Album* antzezlanaren emanaldia egitera igo zen oholtza gainera Intza Alkain herritarrarekin batera. Hilaren 10ean ikus-entzuleek euren eserlekuetatik ez dute Iburguren bera ikusiko parean, beste hiru lagunekin batera zuzendu duen *Negu hurbilak* filma baizik. 19:30ean hasiko da emanaldia.

Otsailaren 23an estreinatu zenuten 'Negu hurbilak' Euskal Herriko zinema aretoetan. Zer-nolako harre- ra izaten ari da?

Espektatiba handiak ez genituen pelikula *takillero* askorekin konpetitzen ari garelako, baina, lehen asteetako datu batzuk pasa dizkigute eta jo, Espainiako zazpigarren film ikusiena izan da, Donostiako SADE zinemetako lehenengoa... Harrera beroa izaten ari da. **Lasarteoriatarrek hilaren 10ean izango dute filmaz gozatzeko aukera. Zergatik joan ikustera?**

Sinopsi labur bat eginda, 2011ko udazkenean kokatuta dago; ETAK iragarri berri du armagabetzea. Euskal gatazka politikoaren barruan, ihesaldiarena izan da hasieratik jorratu nahi izan dugun ideia. Neska gazte batek (Jone Laspiur) ihes egin nahi du eta muga zeharkatzeko bidean Zubietara (Nafarroa) iritsiko da.

Hasieran pelikula narratiboago bat egitea genuen buruan. Izan zezakeen akzio, abentura gehiago, baina filma prestatzeko dokumentazio lana egiten hasi ginenean

erabaki genuen zerbait humanoa egin nahi genuela, oso barrukoa, detaile txikiei garrantzi handia emanda. Buelta eman diogu pastelari, gurea ez da heroien pelikula bat, on eta txarrena. Egiazko zerbait eraiki nahi izan dugu. Itxaroteari eta zain egoteari buruz hitz egiten du, gauza asko kolokan jartzen ditu eta galdera asko egin ikus-entzuleei. Publikoak ibilbide bat egin beharko du protagonistarekin batera, bakoitzak berea. **Zein baliabide erabili dituzue sentimendu eta atmosfera hori sortzeko? Adibidez, analogikoan filmatu duzue, 16 milimetrotan.**

Analogikoan grabatzeak bazuen arriskua, zinta jakin batzuk genituelako eta planoak gaizki eginez gero kanpoan geratzen zirelako. Horrek ekarri zuen ekipo osoa ikaragarri kontzentratzea errotatu bitartean, une eta eszena bakoitza oso garrantzitsua zen. Konexio hori sekulakoa izan da, nik ez dut halakorik bizi izan inoiz.

Bestalde, denborari dagokionez nebulosa, nahaste moduko batean sartu nahi genuen: iaz egindako film bat 2011n dago kokatuta baina izan zitekeen 1980. urtea ere. Horretan lagundu dute formatu analogikoaren granulatua.

Ekipoaz ari zarenean, zenbat kidez ari zara? Lau pertsonaren artean zuzendu duzue filma.

Negu Kolektiboa hamar bat pertsonak osatzen dugu. Gezur handi bat kontatuko nuke horizontaltasunaren halako apologia bat egin eta den-dena modu asanbleario batean erabaki dugula esango banu, baina, talde oso osatua da, lehendik ere gauzak sortzetik datorrena. Bakoitzak du bere funtzioa baina denok ematen dugu iritzia guztiari buruz: gidoia, argiztapena, irudia... Erabaki batzuk hartu behar dira, denen gustukoak ez direnak, baina zinema egiteko beste era bat dela uste dugu, bide berriak esploratu eta konbentzionala dena zalantzan jartzekoa.

Aktoreak zuzendu dituzu, Mikel. Nolako izan da lan hori, kontuan izanda profesional bakarra Jone Laspiur izan dela eta gainerakoak Zubietako herritarrak?

Ba jo, pila bat ikasi dut eta aldi berean desikasi ere bai. Aktorea naiz ni eta beldurrak izan ditut gauzak nola egin erabakitzerakoan, izan ere, emaitza jakin bat duzu buruan eta ulertu behar duzu pertsona horiek beste toki batzuetan daudela, ez delako haien lana. Maitemindu egin ginen Zubietarekin eta gure be-

gien aurrean gertatzen ari ziren egiazko gauza horiek islatu nahi genituen, beraien eguneroko bizitza. Eskerrak, benetan, eskerrak, bertakoak ez diren antzezleak ez genituela ekarri hori guztia irudikatzen.

Jakina, buruan garbi genuen zer nahi genuen eta jarraibide orokorrak ematen genizkien, 'eszena hau hemen hasiko da' eta horrelakoak, baina, gero, aske uzten genituen euren eguneroko zeregin eta hizketaldietan.

Bartzelonako ESCAC zinema eskolako ikasle batzuen gradu amaierako lan gisa jaino zenak bilakaera nabarmena izan du, nazioarteko zenbait jaialditan saritua izateraino.

Korto bat egitea aurreikusten genuen hasieran, hogeitun minutura iritsiko ez zena. Gure taldeak erabaki zuen formatu jakin horretaz ez hitz egitekoa eta 2022ko urtarrian zortzi egunez grabatu genuen, bi urteko dokumentazio lanaren ostean. Ordu eta zerbait irauten duen metraje batekin itzuli ginen Zubietatik. Urtebeteko tarte bat ireki zen orduan eta 50 minutuko lagin bat erakutsi genuen jaialdiek dituzten laborategi batzuetan, kritikari ugariaren aurrean. Bi ekoiztetxek (Maluta Films eta Cornelius Films) proiektuan sartzea erabaki zuten eta iazko urtarrilean hiruzpalau egunez errodatzeko diru pixka bat lortu genuen. Gure aurrekontuarekin berez horrelako zerbait egitea ezinezkoa den arren, produzitu egin genuen.

Guretzat ametsetakoa den nazioarteko jaialdi batetik deitu ziguten *Negu hurbilak* estreinatzeko, Suitzako Locarno-kotik, autore zinemari buruzko munduko onena denak. Iazko abuztuan izan ginen han eta zoramena izan zen: aretoa beteta, euskarazko film bat ikusten, Epaimahaiaren Aipamen Berezia eman ziguten. Horrek ate asko ireki dizkigu geroztik.

Horrek erakusten du industria-ko eragileek nola zaintzen duten euskal zinema: kanpoan egin behar izan dugu bidea, nazioartean oihartzuna lortu, Euskal Herriari oso lotuta dagoen lan batek hemengoan interesa pizteko. Tokiko ekoizpena izanagatik, gaia unibertsal da, zoritxarrez; ikus-entzuleek asko konektatu dute ihes egin beharrentzat kontzeptuarekin.

Elkarrizketa,
osorik, www.txintxarri.eus
webgunean



"Arbitro izateak heltzen laguntzen du. Astebururo konpromiso bat duzu"

NEREA REBOLLO FUTBOL EPAILEA

Nerea Rebollok (Lasarte-Oria, 2002) DBH4en Ostadarren jokatzen zuenean futbola gustuko zuela baina jokatzea bere pasioa ez zela nabaritu zuen. Bere zaletasunarekin jarraitzeko futbola beste ikuspuntu batetik bizitzea erabaki zuen eta arbitro ikastaroa egin zuen: "Infantil mailan nengoela hasi nintzen arbitratzen eta asko gustatu zitzaidan". Kirola eta epaile lana uztartu zituen urte betez eta lehen batxilergoan ikasketetarako denbora gehiago behar zuenez, epaile bakarrik izatea erabaki zuen.

Astebururo bi partida arbitratzen ditu: larunbat arratsaldeetan nesken neurketak eta igande



VALENTZIako FUTBOL FEDERAZIOA

goizetan mutilenak: "Nesken mailan, federazioko 3. mailan epaile nagusi naiz eta 2. mailan laguntzaile modura nago. Mutiletan, berriz, Gorengo maila epaitu dezaket eta Ohorezko mailan laguntzaile. Bigarren mailan epaile nagusi izateko probak egiten ari

naiz orain; Euskadiko bi bakarrik aukeratuko dituzte eta bakarra joango da Madrilera. Bertan ere beste erkidegoko ordezkariakin lehiatzen zara eta uste dut lauk bakarrik lortzen dutela igotzea".

Egun 22 urte ditu eta urte hauetan guztietan izan duen esperientzia positiboari esker jarraitzen du epaile lanetan. Arbitro lanak bestelako onurak ere ekarri dizkiola onartu du. "Epaile izateak heltzen laguntzen du. Astebururo konpromiso bat duzu eta %100a eman behar duzu horretan".

Rebollok jokalaria zein ikusleak gonbidatzen ditu arbitro izatera: "Jokalariei epailean ikuspuntua ulertzeko balio die paper aldaketak eta ziur nago zaletuek ere gozatuko luketela lan hori egiten. Gainera, laguntzen duen beste kontu bat da, gaztea bazara behintzat, dirutxo bat lortu dezakezula".

"Zer puntuatu aldatzen den bakoitzean urduritasuna areagotzen da"

GARAZI GOMEZ GIMNASTIKA ERRITMIKOKO EPAILEA

Garazi Gomez (Donostia, 1993) LOKEko gimnasta ohia entrenatzaile lanetan hasi zenean arauak ondo ezagutzeko eta bere lanari etekin handiena ateratzeko epaile izatea zein garrantzitsua zen ohartu zen.

Maila nazionalen puntuatzen du Gomezek, baina gimnasta internazionalen batek Espainiako torneoren batean parte hartzen badu ere epaitu dezakeela abxiki du. Hilabetearen eta denboraldiaren arabera, asteburuak besteak baino lasaigoak ditu: "Asteburu askotan ez dago lehiaketarik; beste batzuetan, ordea, larunbat eta igande osoa puntuatzen igaro dezakezu".

Gustuko duen lana den arren, zaitasunak daudela onartu du: "Zer puntuatzen den aldatzen den bakoitzean urduritasuna areagotzen da, lana ondo egin nahi duzualako". Baina gimnastikan bikoteka puntuatzen denez, arlo horretan bere esperientzia ona izan dela



G. GOMEZ

nabarmendu du: "Zer bait ikusi ezin izan baduzu edo despistatu egin bazara, bikoteak lagundu egiten dizu. Ni oraingoz pozik nago inorekin arazorik izan ez dudalako, gauza batekin ados ez gaudenean hitz egin eta akordio batera iristen gara".

Horregatik, kirolariak animatu nahi ditu pauso emateko: "zure kirola gustuko baduzu, eta ondo ikasi eta kontrolatu nahi baduzu, niretzat beharrezkoa da epaile izatera animatzea. Askok ikasten da, araudiarekin eguneratuta zaude eta kirola beste ikuspegi batetik begiratzen laguntzen du".

Epaileak, kirola beste ikuspegi batetik

Gero eta emakume kirolari gehiago dago, baina kirol munduko beste arlorretan euren presentzia ez da hain ugaria. Horietako bat da epaile edo arbitro figura. Hiru herritar eta herriko elkarteko kide bat batu ditugu orri honetan euren esperientziak ezagutzeko

"Erabaki guztiak kritikatzeko dituzten pertsonak jasan behar dituzu"

NEREA ARMENDARIZ SASKIBALOI EPAILEA

Nerea Armendariz (Lasarte-Oria, 2004) txikitatik aritu da saskibaloian jokatzen. Ikasketak direla eta, entrenamendu saioetara kale egin behar zuenez, epaile izatea erabaki zuen: "Oso gustuko dudana kirolari lotuta jarraitzeko modu bat da". Etorkezinean jokalaria izatera itzultzeko esperantza du eta bi gauzak uztartu ahal izatea.

Astebururo Gipuzkoa mailan infantiletik senior mailarako bost neurketa zuzentzen ditu berak bakarrik: Talde asko eta epaile gutxi daude".

Araudi aldetik saskibaloia kirol erraza eta zehatza dela uste du,



N. ARMENDARIZ

baina bestelako arazoiek epaiketa zaildu egiten dutela: "Neurketa epaitzea ez da erraza, are gutxiago partida aurrera eramaten laguntzen ez duten entrenatzaile eta jokalariek dituzuneean. Hartzen dituzun erabaki guztiak kritikatzeko dituzten pertsonak jasan behar dituzu". Eta

adibide gisa, orain duela gutxi entrenatzaile batek partida osoa bera iraintzen eta aurkako taldeko jokalariek zirikatzeko eman zuela onartu du. Jarrera horiek epaile gazte askok arbitrajea uztea ekartzen duela dio.

Hala ere, epaile lanak bere alde onak dituela uste du: "Kirol bat jokatuz baino askoz gauza gehiago ikasten direla uste dut, ikuspegi desberdinak ikus baitaitezke. Gainera, saskibaloian munduan nahiz kanporetatik kanpo laguntzeko prest dagoen jende asko ezagutzen da".

Hori guztiaz gain, mundu guztia animatzen du noizbat arbitratzen saiatzera. "Gustatzen bazaizu, hobby berri bat aurkituko duzu, eta gustatzen ez bazaizu, ez da ezer gertatzen. Gauza berriak probatzea eta aurkitzea da kontua. Ziur nago ez direla damutuko probatu izanaz".

"Zure lana ongi egin nahi duzu eta akatsik ez egitea duzu beti buruan"

AMAIA CALVO GIMNASTIKA ERRITMIKOKO EPAILEA

Amaia Calvo (Lasarte-Oria, 1984) 2012an atera zuen epaile titulua, orduan gimnastika erritmikoko entrenatzaile modura ari zen eta kirolaren gainean gehiago jakiteko eta araudiarekin egunean egoteko asmoz egin zuen.

Kirolaz bestelako lana eta familia duenez, Euskadi mailako probetan bakarrik epaitzen du: "Ezin naiz astebururu batetik bestera ibili. Gure jardunaldiak luzeak dira, goizeko 10:00ak aldera hasi eta gaueko 21:00ak arte batzuetan. Eta lekutik mugitu gabe egon behar duzu".

Lan zaila dela eta lehen proba puntuatu zuenetik urteak igaro badira ere, lehiaketa bakoitzean urduritasuna nabari duela onartu du: "Zure lana ongi egin nahi duzu eta akatsik ez egin".

Gainera, gimnastika erritmikoko epaileek etenbako trebakuntza dutela azpimarratu du: "Lau urtero titulua berritze



G. GOMEZ

azterketa egin behar dugu. Ez dakit beste kirolaren horrela izaten den edo ez. Baina gurean, joko olimpiko batzuen ostean, araudi aldaketa dago eta eguneratua egon behar duzu. Gainera, federazio ezberdinetako zirkularrak iristen dira ia astero eta horiek ere aztertu eta barneratu behar dituzu".

Hala ere, gustuko duen lana da eta kirolariak edo zaleak animatzen ditu epaile pausoa ematera: "Lehiaketa bakoitzean hamasei bat epaile behar dira eta beti dago falta".

LOKEko judokak, maila ezberdinetako podiumetan

Espainiako Kopako jardunaldia zein kadete eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketak lehiatu dituzte LOKEko judokak eta hiru lehiaketetan dominak jantzi dituzte. Infantil mailako lau kidek Euskadiko txapelketarako sailkapena eskuratu dute

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo ataleko kideak txapelketaz txapelketa dabilta. Beterano mailako Espainiako kopako eta infantil zein kadete kategoriako Gipuzkoako txapelketei egin diete aurre azken asteetan eta domina ugari jantzi dituzte.

Otsailaren 18an, Asier Sagasti taldekideak Madrilen beterano mailako kopako jardunaldian parte hartu zuen.

M1 eta M2 kategoriako 100 kilo azpiko lehiak lau judoka izan zituen aurrez aurre eta guztien aurka egin zuen borroka. Puntu bakarrarengatik sailkapen orokorrean zilarrezko domina eskuratu zuen Lasarte-Oriako judokak; M1 kategorian, aldiz, lehena izan zen.

Gaztetxoak ere fin

Martxoko lehen asteburuan, infantil eta kadete kategoriako judokak bildu ziren Urnietan.



Ezkerrean, Asier Sagasti (lehena ezkerretik). Eskuinean, infantil mailako judoka batzuk. LOKE JUDO

Tatamian borroka egiten lehenak infantilak izan ziren, hilaren 2an. LOKEko ordezkariak bina zilar eta brontze bildu zituzten eta gainera, podiumena izan ziren judokak hilaren 24an lehiatuko den Euskadiko Txapelketarako sailkatu dira.

Anne Linazasoro eta Unai Curiel 63 eta 66 kilo baino gehiagoko finalerdiak iritsi ziren, hurrenez hurren. Tamalez ezin izan zituzten euren aurkariak garaitu eta bigarren postuan sailkatu ziren. Iraia Diezek (44 kilo azpiko maila) eta Sofia Po-

zok (57 kilo azpiko kategorian), aldiz, bigarren aukera ongi baliatu eta brontzea jantzi zuten.

Txapelketa horretan Ariane Luis, Iago Izquierdo, Marco Iri-so, Maria Escribano eta Isabella Bondar kideak ere izan ziren borrokan. Nahiz eta txapelketa ona egin, ezin izan ziren dominetako lehiara iritsi.

Kadeteek hilaren 3an izan zuten hitzordua eta LOKEko hiru kidek parte hartu zuten; Ekain Luis, Aitor Santos eta Iker Izquierdo.

Ekain Luisek Tolosa eta Azpeitiko lehiakideei egin zien aurre 90 kilo baino gehiagoko mailan. Ederki lehiatuz urrea janzteko puntuak.

Aitor Santosek (81 kilo azpiko maila) eta Iker Izquierdok (66 kilo azpiko maila), aldiz, ez zuten zortetik izan euren mailetan eta kanporatuak izan ziren.

Hurrengo hitzordua

LOKEko kideek hitzordu garrantzitsuak izango dituzte hurrengo asteetan.

Arestian aipatu moduan, lau infantilek Euskadiko Txapelketa lehiatuko dute. Baina proba hori baino lehen, hilaren 16an, maila horretako kide guztiek Legazpiko herria III. Txapelketan parte hartuko dute. Eta, hilaren 23an, alebinek urteko lehen lehiaketari egingo diote aurre Urnietan, Gipuzkoako txapelketako lehen saioari.

Intzako Nagusien 2. mailako bikotea, Udaberri txapelketako finalaren bila

Intza elkarteko Nagusien 2. mailako pilotariak erronka ederra dute hilaren 9an. Jon Pello Artetxek eta Peru Urdanpilletak osatzen duen bikotea Udaberriko txapelketako finaleko sailkapena izango du jokoan. Hitzordua 12:15ean izango da, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Murumendi izango dute aurrez aurre. A multzoko garaile izateagatik, Intzako bikoteak bi aste izan ditu neurketa prestatzeko. Beasaingo bikoteak, aldiz, bere multzoko bigarren sailkatu eta final laurdenak jokatu behar izan ditu; Behar Zana 22-7 garaituz aurrera egin du. Lehia polita ikusteko aukera izango dute pilotalekura hurbiltzen diren zaletuek.

Ez dira finalerdiak lehiatuko dituzten Intzako pilotari bakarrak izango. Azken jardunaldiko emaitzak kontuan izanik errendimendu mailako hainbat bikote, 2. mailako infantil edo alebin bikoteak kasu, euren txapelketatik kanpo geratzen badira ere, infantil 3. mailan aritu diren Unax Urdangarin, Aday Lucero eta Unai Lizarraga hirukoak hilaren 17an jokatu diren Ekialde eremuko finalaurrekoetarako sailkapena eskuratu du, Alde Zaharra 3 izango du aurkari.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

| |
|--|
| FUTBOLA |
| OHOREZKO ERREGIONALA |
| Ostadar SKT - Oiartzun KE C |
| Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean. |
| GORENGOEN MAILA |
| Touring KE B - Ostadar SKT |
| Igandea. 16:30. Fanderia, Errenteria. |
| ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA |
| Eibartarrak FT - Texas Lasartearra CF |
| Igandea. 15:00. Unbe, Eibarren. |
| ERREGIONAL I. MAILA, KOPA |
| Ostadar SKT - Pasaia KE B |
| Larunbata. 17:55. Michelin kirol gunean. |
| OHOREZKO JUBENILA |
| Ostadar SKT - Kotskas M. Bihotza DC |
| Igandea. 13:00. Michelin kirol gunean. |
| JUBENILEN I. MAILA, IGOERA |
| Elgoibar CD B - Ostadar SKT |
| Igandea. 17:00. Mintxeta, Elgoibarren. |
| Hernani CD C - Texas Lasartearra CF |
| Igandea. 18:30. Zubipe, Hernanin. |
| JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA |
| Ostadar SKT C - Danena KE C |
| Igandea. 14:55. Michelin kirol gunean. |

| |
|--|
| OHOREZKO KADETEA |
| Real Union Club SAD - Ostadar SKT |
| Larunbata. 12:00. Gal, Irunen. |
| KADETE I. MAILA, GIP. KOPA |
| Texas Lasartearra CF - Aizkorri Goierri FT B |
| Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean. |
| Mondragon CF B - Ostadar SKT (neskak) |
| Larunbata. 13:15. Mojategi, Arrasaten. |
| Zarautz KE D - Ostadar SKT B |
| Igandea. 09:30. Asti Txiki, Zarautzen. |
| KADETE I. MAILA, UD. KOPA |
| A. Mundarro FKE - Ostadar SKT C |
| Larunbata. 12:30. Zarkumendegi, Astigarragan. |
| INFANTIL HANDI, KOPA |
| Ostadar SKT - Oiartzun KE |
| Larunbata. 14:35. Michelin kirol gunean. |
| ARETO FUTBOLA |
| I. MAILA |
| Coinbroker Aloña - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones |
| Ostirala. 20:00. Zubikoa kirol., Oriatin. |
| III. MAILA |
| Aldapeta Maria Ik. B - Eguzki ISU Lehoak |
| Ostirala. 22:30. Aldapeta Maria ik., Donostian. |

| |
|---|
| GAZTEEN MAILA |
| Eguzki Bod. Ayesa - Erain |
| Larunbata. 13:15. Maialen Chourraut kirol. |
| KADETE MAILA, LIGA |
| Eguzki G. Goxua - Erain |
| Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol. |
| INFANTIL MAILA |
| Lauburu KE Ibarra Neskak - Eguzki B. Escalerilla |
| Larunbata. 13:15. Belabieta kirol., Ibarra. |
| SASKIBALOA |
| I. MAILA |
| Tecnun - Ostadar SKT |
| Larunbata. 20:00. Tecnun, Donostian. |
| III. MAILA |
| Ostadar SKT - Sasaki Axular |
| Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut kirol. |
| JUNIOR ERRENDIMENDUA |
| Carnicas San Marcial Hondarribia - Ostadar SKT |
| Igandea. 17:45. Hondartza kirol., Hondarribian. |
| KADETE ERRENDIMENDUA |
| Ostadar SKT - Zast GAP |
| Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol. |

| |
|--|
| KADETE PARTAIDETZA |
| Panelfisa TAKE - Ostadar SKT |
| Igandea. 11:10. Maialen Chourraut kirol. |
| INFANTIL ERRENDIMENDU URREA |
| ZAST Lynx - Ostadar SKT |
| Larunbata. 18:30. Aritzatalde kirol., Zarautzen. |
| BOLEIBOLA |
| EUSKAL LIGA |
| UDAPA Jatorkide Jub. - Ostadar SKT |
| Larunbata. 16:15. Gasteiz, Araban. |
| EUSKAL LIGA, II. MAILA |
| Navarvoley B - Ostadar SKT |
| Igandea. 11:30. Berriozarko kirol., Nafarroan. |
| SENIOR MAILA |
| Ostadar SKT - Hernani KE |
| Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol. |
| JUBENIL MAILA |
| Arizmendi B - Ostadar SKT |
| Igandea. 10:00. Ibarra kirol., Aretxabaletan. |
| KADETE MAILA |
| Ostadar SKT - Tolobolei A |
| Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol. |

| |
|---|
| IGERIKETA |
| NEGUKO SARIA |
| Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Neguko Saria lehiatuko dute. |
| Larunbata. 15:30. Allurralde Kirol., Andoainen. |
| PILOTA |
| UDABERRI TX., FINAL ERDIA |
| Intza KE - Murumendi |
| Larunbata. 12:15. Michelin kirol guneko pil. |
| GIMNASTIKA ERRITMIKOA |
| BENJAMIN TOPAKETA |
| Landaberriko benjamin taldeek topaketa izango dute. |
| Larunbata. 17:00. Udal kirol., Hernanin. |
| XAKEA |
| III. MAILA |
| Taula B - Beraun C |
| Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean. |
| DUATLOIA |
| AÑORGAKO DUATLOIA |
| Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Añorgako III. Duatloian parte hartuko dute. |
| Igandea. 10:30. Añorga, Donostian. |

Herriko atletak, Espainiako txapelketetako finaletan

Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako Espainiako txapelketetan parte hartu dute. Atletico Renteriako Jose Ramon Latorre eta Mari Carmen Olaso Master mailan lehiatu dira; Ostadar SKTko Eider Redondo 16 urtez azpikoan. Hirurak izan dira finaletan eta Latorre, podiumean

Txintxarri

Herriko atletak Espainiako bi txapelketei egin zieten aurre hilaren 2an eta 3an, master zein 16 urtez azpikoari hain zuzen. Donostiako Antonio Elorza belodromoan jokatu da lehena eta Atletico Renteriako Jose Ramon Latorre herritarrak brontzezko domina jantzi du; Ostadar SKTko Eider Redondo gazteak, aldiz, zortzigarren amaitu du maila horretako bere lehen lehiaketa.

Master edo beterano mailako txapelketan Errenteriako taldeko kide diren bi herritar izan ziren lehian: Latorre eta Mari Carmen Olaso.

Latorrek M45 kategoriako 60 metroko lasterketan parte hartu zuen. Hirugarren sailkapen saioan garaile (07,42) izan eta podiumeko hirugarren mailara igotzeko, finalean ehuneko batzutan ondu zuen (07,37) marka.

Olasok, berriz, distantzia luzeei aurre egin zien eta 3000 zein



Ezkerrean, Redondo eta eskuinean Latorre. OSTADAR ATL./ATL. RENTERIA

1500 metroko F55 lasterketetan finalista izan zen.

Finalean lehiatu

16 urtez azpiko txapelketa, berriz, Valentzian izan zen eta bertara egin zuen bidaia Ostadar SKTko Eider Redondo gazteak. Luzera jauziko proban parte hartu zuen talde urdin-beltzeko kideak eta zortziko finalera sailkatzea lortu zuen 5,15 metroko jauziarekin. Ezin izan zuen marka hori gainditu, baina Ostadar SKTko arduradunak pozarren daude gazteak lortutako emaitzarekin.

Pres, bigarren Bolonian

Boloniako Maratoia lehiatu zen hilaren 3an, Italiako herri horretan. Proba horrekin batera 30 km., maratoi erdia eta bost km. probak ere jokatzen dira eta aurtan herritar bat izan da bertan lehian, Aloña Mendiko kide Jon Presa.

21 kilometroko lehiari egin zion aurre Lasarte-Oriako ordezkariak eta podiumeko bigarren mailara igo zen. Helmuga igarotzen lehena Francesco Mariani italiarra izan zen (01.08.17) eta ia bi minutura iritsi zen Aloña Mendi elkarteko herritarra (01.10.12). Beste proba batzutan ere izan ziren herritarrak lehian, hala nola, Aiako XIII. Mendi lasterketan.

18 urtez azpiko taldeak ezin izan du garaipena eskuratu

Cumenor Elorrio Arrasate RTk aldea ireki du lehen zatian eta ongi eutsi dio neurketa amaitu arte

Txintxarri

Euskal Ligako 18 urtez azpiko mailako norgehiagokaz gozatu ahal izan zen hilaren 2an, Michelin kirol guneko zelaian. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTk Cumenor Elorrio Arrasate RTren aurka neurtu zituen indarrak.

Etxeko taldea indartsu hasi zen eta zortzigarren minutuan Eneko Sanchez herritarraren entseguarekin hasita hiru minutu eder izan zituen. Bina entsegu eta gauzatzerekin marka-gailuan aurre hartu zuen.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Arrasatearrek ez zuten amore emango, ordea; beltzen ahulgu-neak ongi baliatu zituzten pixkana aldea txikitu eta marka-

gailuari itzulia emateko. Beltzek ezin izan zuten marra berriro igaro eta atsedenaldira 14-21 iritsi ziren.

Bigarren zatia hasi eta zazpigarren minutuan aurkariek entsegu eta gauzatzerekin egin zuten. Beltzek Sanchezen bi entseguarekin gerturatzea lortu zuten. Horri esker, etxeok azken minutura arte arrasatearrek gainditzeko lan egin zuten. Ez zen posible izan eta azken emaitza 24-28 izan zen.

Teknikazio saioetan

Partidako protagonista izan zen Eneko Sanchez, Ordizian martxan jarri berri den Teknikazio zentroan saioak egiteko aukeratu du Espainiako Federazioak. Astean bi saio izango dituzte hautatutako 2006. eta 2008. urte artean jaiotako 30 bat jokalarik.



TXINTXARRI

Mendian nola orientatu ikasten

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak taldeak antolatuta, hilaren 1ean, istripua izan edo galduz gero mendian nola bideratu irakatsi zien DYAKo Joxe Luis Artolak. Mercero gunean batu ziren hamabost bat lagunei IGN aplikazioaren berri eman zien. Alde teorikoa gainbegirata, praktikoari eman zion garrantzi handiagoa.



TXINTXARRI

Hockeyaz gozatzeko arratsaldea

16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa dela eta, hilaren 3an, Euskadiko Hockey Federazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, haurrek hockeyan jolasteko aukera izan zuten Okendo plazan. Itxitura biribilaren barruan, zenbait jolas gune zehaztu zituzten antolatzaileek: elkarren aurka jokatu, jaurtiketak egin edo stickarekin duten trebezia probatzeko. Eguraldia aproposena ez bazen ere, euria geratu, eta dozenaka haur animatu ziren kirol hori hobe ezagutzera. Realeko hockey taldeko neskek lagundu zieten pilota nola gidatu irakasten eta han bildutakoan kontra ere jokatu zuten. Txurdin ere bertan izan zen, girotze lana egiteaz gain, haurrekin ere jolasean.

Buruntzaldea IKTk, Hazparne eta Herniko kideekin topaketa


Martxoko lehen asteburuan atsedan bazuten ere, Buruntzaldea IKTk kideek Hazparneko Igerikatzere eta Hernani KE igeriketa taldeekin batera antolatutako topaketa hartu zuten parte hilaren 2an, Hernaniko Udala kiroldegian.

Hiru taldeen artean 60 haur eta gazte inguru elkartu ziren eta goiz paregabea igaro zuten denen artean, saio bateratu eta diberti-

garri batean. Adinaren arabera multzoetan banatu ostean, ur kanpoan ezagutze ariketak eta beroketak egin zituzten. Jarraian uretara jauzi egin eta estiloak landu zituzten. Saioa amaitzeko denak elkarrekin nahastuta lau talde osatu eta errelebo proba bat egin zuten.

Hilaren 9an, Gipuzkoako txapelketarako gutxienez ez zuten infantil, junior eta senior igerilariak Gipuzkoako Neguko Sariari egingo diote aurre, Andoaino Allurralde igerilekuan.

ZORION AGURRAK



Iñigo
Zorionak Bro! Ze uste zenuen ahaztu egin zitzaidala!! Zuretzat ez dira urteak pasatzen! Segi ospatzen!! Muxu handi bat familiaren partetik!



Arantxa eta Iñigo Jon
Zorionak unibertso ama eta aita guapoenei, 35 urte ezkontuta! Eta geratzen zaizkizuenak... PD: Non egingo dugu zuengatik txin-txin aurten?



Oier
Zorionak Oier! Ondo ospatu zure eguna eta disfrutatu, aiton-amona eta familien partetik. Besarkada mila bihotzez, maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 8



Larunbata, 9




Igandea, 10



Astelehena, 11



Astearte, 12



Asteazkena, 13



Osteguna, 14



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|----------------|------------|
| OSTIRALA, 8 | DE ORUE |
| LARUNBATA, 9 | DE ORUE |
| IGANDEA, 10 | DE ORUE |
| ASTELEHENA, 11 | DE MIGUEL |
| ASTEARTEA, 12 | LASA |
| ASTEAZKENA, 13 | URBISTONDO |
| OSTEGUNA, 14 | DE ORUE |

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 2 | | 1 | | | 7 | | |
| | | 5 | | | 8 | | 6 | 3 |
| 3 | | | 2 | | 5 | 4 | | |
| | 3 | | | | 2 | 9 | | 5 |
| | 9 | | 7 | 4 | | | | 2 |
| 2 | | 1 | | | | | 8 | 4 |
| | | 3 | 4 | | 9 | | | 1 |
| | 1 | | | 5 | | 8 | | |
| | 5 | 9 | 6 | 2 | | | 4 | |

Sudoku10.net

OHARRAK

Elkartasun azoka

Donostiako Santa Teresa Ikastetxeak elkartasun azoka antolatuko du garu, hilaren 8an, ikastetxean bertan (Manuel Lardizabal Ibilbidea 25, Ibaeta, Donostia). Goizean, 09:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:00etara produktu ezberdinak izango dira eskuragai.

Bildutako dirua gobernuz kanpoko hiru erakundetara bideratuko da, giza integrazio proiektu ezberdinetarako: Caritas, Fundeo eta Manos Unidas.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943-21 17 64 telefonora deitu behar dute interesa duten herritarrek.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaia-tzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

KORRIKA-ko zenbaki berezia martxoaren 15ean



Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu? Jar zaituz gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66 | 943-37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzan. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzan dago abendutik aurrera. Arratsaldean deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINTZA
Banatzailea behar da Andoaingo zonaldean Berria egunkaria banatzeko. Bertarkoa izatea kontuan hartuko da. Kontratu mugagabea, lanaldi partziala, egunsentian. Asteartetik igandera. Ezinbestekoa da norberak bere ibilgailua izatea. Interesatuak bidali mesedez datu per-

tsionalak edo kurrikuluma *banaketa@bidera.eus* helbidera.

ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean ebexera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
- ▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Xepelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratzera deitu du Emakumearen Nazioarteko Egunean.

Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Asunak talde feministak manifestaziora deitu du Emakumearen Nazioarteko Egunean.

Okendo plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Makelur taldeak *Escuela de princesas* antzezlaren emanaldia egingo du, Martxoaren 8rako udalak prestatutako egitarauaren barruan.

Sarrera doakoa da. Kultur etxea, 19:30ean.

ANDOAIN Bertsolaritza

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketan parte hartuko dute Earra eskolako ikasle Xuban Urdalleta eta Nikola Iraolak.

Sarrerak 16 euro balio dute. Kotoi elkarte, 20:00etan.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Sinadura bilketa

Herritar talde batek sinadurak bilduko ditu osasun publikoaren sistemaren alde. Hilaren 16an manifestazioak egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan.

Okendo enparantza, 12:30etik 13:30era.



Hilabete honetako kultur jardueren berri eman dute Lasarte-Oriako Udaleko Kultura zinegotzi Ainara Elicechea eta sail horretako teknikari Xabier Goitiak. Ohi bezala diziplina artistiko ugariak ekimenak bildu dituzte programan, baita Emakumearen Nazioarteko Egunean nahiz 23. Korrikaren harira izango direnak ere, horien antolatzaileekin elkarlanean.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Zinema

El arca de Noe filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

Negu hurbilak filma emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan. *Kultur etxea, 19:30ean.*

ASTELEHENA 11

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Sara Arruti Benito EHUko ikertzaile eta legelariak eta Maider Galardi

Fernandez de Agirre EHUko ikerlari eta kazetariak *Solo sí es sí: alumbrando las sombras que ha producido el ruido mediático* hitzaldia emango dute, Martxoaren 8rako udalak prestatutako egitarauaren barruan. *Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.*

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Proiektzioa

Ihitten elkartearen *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala proiektatuko du Asunak talde feministak. *Zabaleta Auzolan elkartearen lokala, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Literatura

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Idoia Garzes idazle lasarteoriatarra gonbidatuko dute *Mendiko gaitza* eleberriaz hitz egitera. Taldearen dinamizatzaile den Aintzane Usandizagak gidatuko du saioa. Martxoaren 8rako udalak antolatutako egitarauaren barruko ekimena da.

Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Korrika Kulturalaren barruan, Bea Egizabal clownak bakarriketa bat emango du eta ostean euskaldundu egin diren zenbait herritarrekin hitzaldi bat aurrera eramango dute. *Ttakunenea elkarte, 18:00etan.*

LASARTE-ORIA Opera

Danok Kide elkarteak eta udalak aurrera eramaten duten zikloaren barruan *La Cenerentola* opera ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Antzerkia

Evaren Alabak taldeak *Cromlech* antzezlaren emanaldia egingo du, elebitan. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. *Antonio Mercero aretoa, 19:30ean.*

LASARTE-ORIA Dantza

Shine ikuskizunaren emanaldia egingo du Lasala konpainiak. XX. Dantza Zirkuituaren baitako ekimena da eta sarrerak 6 euro balio dute. *Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.*

LEGAZPI Bertsolaritza

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketan parte hartuko dute Earra eskolako ikasle Arait Ramos eta Maddi Lasak. *Muruazpi elkarte, 20:00etan.*

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Jaia

23. Korrika aurkezteko gala aurrera eramango dute. Herriko zenbait eragilek emanaldiak egingo dituzte eta ondoren aurtengo peto eta lekukoak banatuko dituzte. 17:45ean, Okendon abesti batzuk kantatuko ditu Xumela koruak eta ondoren kalejiran joango dira aretoa kideak. Ikuskizuna amaitzean, Ttiriki Ttarraka eskolako trikitilariak girotuko dituzte kaleak. *Kultur etxea, 18:30ean.*

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Bertsolaritza


Ez da kasualitatea bertso saio musikatua egingo dute Korrika Kulturalaren barruan. Ane Labaka, Oihana Iguaran, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita ariko dira bertsoetan; Maite Berriozabalek jarriko dizkie gaiak. Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti. *Kultur etxea, 12:30etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

Corre Tiger, corre filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

Secretos de un escándalo filma emango dute, helduentzat. Sarrerak 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*



EZ GARA JAITSIKO!

Martxoak 15, ostirala
Sarobe antzokia. URNIETA

Bi saio: 17:00 / 19:00

8€ Sarrerak salgai:
BKN, Ernaitza, Aiurri

AIURRI

23. Korrika
HERRI
aek

INISTORRA
Unitario Enkaltzaileen
Biltzara

AIURRI
URNIETARRENA DA

Udalekuak

Ttakun uda 2024

LH3-LH4
Uztailak 14-21
(Atxondo)

| UDALEKUAK | |
|-----------|------------|
| BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
| 240 € | 258 € |

| UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK HILABETE OSOA (10.00ETATIK) | | UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK HILABETE OSOA (9.00ETATIK) | | UDAKO TXOKOAK 1. HAMABOSTALDIA + UDALEKUAK (10.00ETATIK) | | UDAKO TXOKOAK 1. HAMABOSTALDIA + UDALEKUAK (9.00ETATIK) | | UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK 2. HAMABOSTALDIA (10.00ETATIK) | | UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK 2. HAMABOSTALDIA (9.00ETATIK) | |
|---|------------|--|------------|--|------------|---|------------|--|------------|---|------------|
| BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
| 324€ | 349€ | 350€ | 377€ | 294€ | 317€ | 311€ | 335€ | 270€ | 291€ | 279€ | 301€ |

UDAKO TXOKOETAN JANGELA AUKERA EGONGO DA



LH5-LH6
Uztailak 3-12
(Azkarate)

| UDALEKUAK | |
|-----------|------------|
| BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
| 300 € | 322 € |

| UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK (10.00ETATIK) | | UDALEKUAK + UDAKO TXOKOAK (9.00ETATIK) | |
|---|------------|--|------------|
| BAZKIDE | EZ BAZKIDE | BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
| 366€ | 394€ | 386€ | 416€ |

UDAKO TXOKOETAN JANGELA AUKERA EGONGO DA

Kanpaldiak

DBH 1-2
Uztailak 15-25
Abenturaz blai (Araba)

DBH 3-4
Uztailak 3-13
Kosta ala kosta (Bizkaia-Gizpuzkoa)



| BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
|---------|------------|
| 330€ | 355€ |

| BAZKIDE | EZ BAZKIDE |
|---------|------------|
| 330€ | 355€ |



Matrikulazio epea: martxoaren 11tik maiatzaren 3ra

labur.eus/udalekuak24
943-37 14 48 | 665 49 75 02
Geltoki kalea, 4 LASARTE-ORIA
ktglasarteoria@ttakun.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia